

Helburuak

1. Jendartea **fundamentalismoen aurkako borrokara gerturatzea** Ipar eta Hego globaleko erakunde zein mugimenduen arteko topaketa eta elkarrizketen bitartez.
2. Gaur egungo **arazo soziopolitiko desafiataileenei heltzea**, bai eta feminismoarekin, antirrazismoarekin eta giza eskubideen aldeko borrokarekin dituen elkarguneei ere.
3. **Justizia sozialaren aldeko eraldaketa esperientziak** partekatzea eta sustatzea, gorputzaren, espazio publikoaren eta zaintza kolektiboaren (bir)jabetzea baliolan jartzeko.

Norentzat da?

- Unibertsitateko ikasle eta irakasleak.
- Aktibistak, erakundeetako ordezkariak eta sare-feministak eta antirrazistak, giza eskubideen eta sexu eta ugalketa-eskubideen aldeko eragileak.
- Berdintasuneko zein garapenerako lankidetzako teknikariak.
- Gaitegian interesa duen pertsona edo erakunde oro.

Azaroak 28

09:00-09:30 **Harrera eta material banaketa**

09:30-09:45 **Ongi-etorria**

09:45-11:00 **Irekiera-elkarrizketa: "Botere soziala eta botere egiturak ulertzen"**

- **Srilatha Batliwala**. Ikertzaile eta aktibista feminista indiarra. Emakumeen ahalduntzeari buruzko hainbat libururen egilea. Hego Globalean egoitza duen eta Hego Globaleko emakumeek zuzentzen duten CREA giza eskubideen nazioarteko erakunde feministako aholkularia.
- **Shalini Singh**. Indiako oinarri sozialaren lidergo feminista indartzeko CREAko programen zuzendaria.
- **Margaret Bullen**. Antropologoa eta UPV/EHUko HEFA I Fakultateko irakaslea. AFIT eta "Unibertsitate Kritikoa Sarea" (UKS)-ko kidea. Medicus Mundi Gipuzkoako ko-laboratzailea.

11:00-11:30 **Atsedendaldia**

11:30-13:00 **Mahai-ingurua: "Antifeminismoa eta arrazismoa. Gorroto-delituak bandera politiko gisa"**

Dinamizatzailea: Maitane Arnoso. UPV/EHUko Psikologia Fakultateko irakaslea. UKS-ko kidea eta "SOS Arrazakeria Gipuzkoa"-ko militantea

Hizlariak:

PERU:

Rocío Gutiérrez, "Movimiento Manuela Ramos". Peruko erakunde feminista. Botere-harremanak eraldatzeko eta emakumeen erabateko herritartasuna lortzeko borrokan.

AUSTRIA:

Judith Götz. Ikertzailea eta Zientzia Politikoetako doktorea, generoan eta eskuin-muturretan aditua. "Perspectivas globales sobre Anti-Feminismo. Ataques religiosos y de extrema derecha contra la igualdad y la diversidad" (2023) antologia argitaratu berri du.

ESTATUA:

Nuria Alabao. Kazetaria eta genero-gaien ikertzailea, bai eta eskuin-mutur berrietan arrazarekin eta migrazioekin dituzten loturen ingurukoa. Cxt.es-ko feminismoen atalaren koordina-tzailea.

13:00-14:30 **Komunitateak salbatzen du komunitatea! Ideien laborategia:**

LAB 1: "It's my body! Kirola eta espazio publikoaren jabe-kuntza estrategia feminista gisa"

Partaideak:

INDIA:

Shalini Singh. "Kirola ahalduntzeko tresna gisa" CREAren programaren zuzendaria.

ETIOPIA:

Sosina Challa Debelu. "Ethiopian Girl Skaters"-en sortzailea.

ESTATUA:

Lilaton taldea.

LAB 2: "Harrera egiten duten hiriak, zaintza komunitarioa: Kaleko Afari Solidarioen esperientzia"

Partaideak: Koldo Telleria. KAS eta DUNAK taldeetako kidea. UPV/EHUko Arkitektura Goi Eskola Teknikoko irakaslea.

Aurrez-aurreko partaidetza

0,5/1
KREDITU

UPV/EHUko Psikologia Fakultateko eta HEFA Fakultateko Areto Nagusia.
Tolosa Hiribidea, 70. Donostia

Izen ematea **azaroaren 20ra** arte
www.medicusmundigipuzkoa.eu



- Ingelesa-gaztelania-ingelesa aldi bereko itzulpena egongo da.
- UPV/EHUko ikasleentzat kreditu erdia edo osoa. (Info + web orrian)
- Bertaratze-ziurtagiriak banatuko dira.

T. 943 40 47 40 /

comunicacion.gipuzkoa@medicusmundi.es

[Instagram](https://www.instagram.com/medicusmundigipuzkoa) [Facebook](https://www.facebook.com/medicusmundigipuzkoa) [Twitter](https://www.twitter.com/mmgipuzkoa) @mmgipuzkoa

Azaroak 29

09:00-09:15 **Harrera eta material banaketa**

09:15-09:30 **(Bir)kokatzen: Arrate Agirrezabal Prado**.

UPV/EHUko Psikologia Fakultateko irakaslea

09:30-11:00 **Mahai-ingurua: "Lurraldeak eta gorputzak erresistentzian: emakumeak botere korporatiboaren aurrean"**

Dinamizatzailea: Dalila Argueta. Hondurasko aktibista eta giza eskubideen eta naturaren defendatzailea

Hizlariak:

EKUADOR:

Patricia Gualinga. Giza eskubideen eta Ekuadorko Amazonian Sarayakuko biztanle indigenen eskubideen defendatzailea.

INDONESIA:

Rukka Sombolinggi. "Nusantara Herri Indigenen Aliantza" (AMAN)-eko lehen emakume idazkari nagusia da, munduko herri indigenen erakunde handiena.

ESTATUA:

Sandra Algaba El Khadraoui. "Jornaleras de Huelva en Lucha" sindikatuko aktibista. Bertan, landa-eremuko emakume langileen eskubideen alde, feminismoetatik, ekologismotik eta antirrazismotik borrokatuz.

11:00-11:30 **Atsedendaldia**

11:30-13:00 **Mahai-ingurua: "Sexu-lana: begirada kritiko bat klase, arraza eta generoaren ikuspegitik"**

Dinamizatzailea: Maggy Barrère Unzueta. UPV/EHUko Zuzenbide Fakultateko Zuzenbidearen Filosofiako katedraduna. Justizia Sozialaren aldeko Klinika Juridikoa zuzentzen du, ikuspegi interseksionaletik diskriminazio-kasuei buruz ikertuz

Hizlariak:

ESTATUA:

Kenia García. Sevillako Prostituten Kolektiboko kidea eta espainiar Estatuko migratzaileen erregulazioaren aldeko "¡Regularización Ya!" mugimenduko bozeramailea.

INDIA:

Bharati Dey. Sexu-langilea eta aktibista, sexu-langileen Indiako Sarearen Batzorde Zentraleko kidea.

PERU:

Leyla Huertas. Emakume trans feminista eta giza eskubideen defendatzailea, "Féminas Peru"-ko zuzendaria. Peruko emakume trans sexu-langileen problematika ikusarazten duen erakunde.

13:00-13:15 **Bateratze-lana eta itxiera**

13:15-14:00 **Klownkusioak:** Beatriz Egizabal, Magma Mia

14:00-15:00 **Lunch**

7. Topaketak



Sarrera

Fundamentalismoei buruzko VII. Topaketa hauek gaur egungo testuinguru soziopolitiko eta feminismoarekin eta arrazismoaren aurkako eta giza eskubideen aldeko borrokarekin dituen elkargunak aztertze gisa aurkezten dira. Fundamentalismoek gizarte-arautzat pentsaera bakar eta aldaezin bat defendatzen dute eta hauek adierazpen kultural, erlijioso, ekonomiko zein politiko anizteta ulertzen ditugu, hauek guztiek ondorio ezin kaltegarriagoak eragiten baitizkio gizakiari modu orokorrean, eta sexu-eskubideen eta ugalketa-eskubideen bermeari bereziki.

Mundu mailan antifeministak eta arrazistak diren gorroto-diskurtsoak larriki areagotzen ari dira. Mundu zabalean sare sozialek zein agenda politikoek txertatzen dituzten eskuin-muturreko narratibak. Arrazismoa eta antifeminismoa tokian tokiko testuinguruetara egokitzen diren bi ardatz diskurtsibo nagusi bilakatu dira. Eta gainera, geroz eta nabarmenagoa den prekarietateak diskurtso hauek elikatzen ditu.

Hala ere, badira esperientzia eraldatzaileak. Ertzetatik mugiarazteko gaitasuna duten erresistentziak eta komunitatea eraikitze baliagarriak diren esperientziak. Topaketa hauek elkartzeko, ezagutzeko eta indartzeko gunea izan nahi dute.

Anima zaituz politikak
BIRPENTSATZERA,
eraldaketa
BERRIRUDIKATZERA,
eta borroka-estrategiak
BERRABIATZERA!

Fundamentalismoen
aurka, funtsezkoa
JENDEA delako!

ANTOLATZAILEAK:

medicusmundi
gipuzkoa

C
crea

Manuela Ramos

LAGUNTZAILEAK:

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

UKS

FINANTZIATZAILEA:

GARAPENERAKO LANPOSTUAREN EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO

ELUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE POLÍTICA SOCIAL
AGENCIA VASCA DE POLÍTICA SOCIAL